

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

"Kanpo Lana" hitzarmena sinatu dute Hezkuntza Departamentuak eta Irunberriko Udalak

LH IBPk programa aplikatuko du bizikidetza hobetzeko eta, ikasleak kaleratuak badira, herriko San Isidro Zaharren Egoitzan jarduerak egingo dituzte

Astelehena, 2019.eko otsailak 11

Hezkuntza kontseilariak, María Solana Aranak, Irunberriko alkateak, Rocío Monclús Manjonek, eta Zangotzako Eskualdeko Mankomunitateak Irunberri duen kideak, Mauro Gogorcenak, "Kanpo Lana" programaren hitzarmena sinatu dute gaur goizean. Sinatzerakoan, Carlos Chavarren Cabrero ikastetxeko ikasketa-burua ere bertan egon da. Modu horretan, Irunberri LH IBPk gelako kaleratzeen ordez lan sozialak egiteko betebeharra ezarriko du.



Argazki-oinaren informazioa oharraren amaieran.

Kanpo Lana programaren helburua da, bizikidetzaren aurkako jarrerak edo portaera oso kaltegarriak dituzten ikasleak eskolatik kaleratu ordez, jarduera sozialak egiten jartzea, alderdi eraikitzailea izan dezaten eta ikasleei jarduera ezberdinetan esku hartzeko eta beste errealitate sozial batzuek ezagutzeko aukera ematearren. Modu horretan, ikasleak ikasteko motibatu nahi dira, etorkizunerako orientatzearekin batera, baterako hezkuntzaren ikuspegia sartuz.

Gaur sinatutako hitzarmenean, jarduera-protokolo bat jasotzen da, "Kanpo Lana" programa bakoitzean burutu beharrekoa; bertan, Udalez eta ikastetxeaz gain, familiek ere modu aktiboan parte hartu behar dute.

Kanpo Lana hitzarmena sinatzeko ekitaldian, María Solana Arana kontseilariak ondorengo adierazi du: "hitzarmen hauek ez dira egin kaleratze-kopuruak bultzatuta, baizik eta ikasleei aukera integratzailea emateko eta esperientzia ezberdinen bitartez ikasteko aukera eskaintzeko xedearekin". Gainera, programa honetan esperientzia jada dutenek; hots, "horietan parte hartzen duten Udalek eta elkarteek, modu positiboan baloratzen dutela" esan du.

Irunberriko IBP ikastetxean, ikasleak portaera txarrarengatik kaleratu ordez, Irunberriko Udalaren erakunde kolaboratzailearen jardueretan parte

hartu edo lagundu beharko dute. Horrelako egoeraren bat sortzen den bakoitzean, bi erakundeak koordinatuko dira, eta ikasleek egin beharreko lanak Irunberriko Irunberri LH Ikastegi Bateratu Politeknikoak eta erakunde kolaboratzaileak adostuko dituzte.

Egoitzarekiko lankidetzak

Irunberriko LH IBP ikastetxearen kasuan, ikasleek jarduerak egin ahal izango dituzte herriko San Isidro Zaharren Egoitzan; era horretan, zuzenean ezagutu ahal izango dituzte han eskaintzen diren zerbitzuak eta adinekoak zaintzarekin loturiko lan guztiak. "Ikasleek hemen garatuko dituzten jarduerak haien ikasketa-profilera egokituta egongo dira", adierazi du Mauro Gogorcenak, egoitzako ordezkariak. Halaber, adierazi du programaren bitartez "familiei laguntzen zaiela, seme-alabak kaleratuak izatean ez baitira etxean geratzen, eta irtenbide profesionala garatzeko aukera baitute".

Ikastetxeak ezarriko ditu ikasle bakoitzak egin beharreko lanak, eta, ikasleak, jarduera horiek egin ondoren, egindako jarduera azaltzeko memoria bat aurkeztu beharko du; prozesu horretan, ikasleak baimenduta egongo dira une guztian. Ikasturte bakoitza amaitzean, programa Ikastetxeko Bizikidetzak Batzordeak ebaluatuko du, eta horren garapenaren berri emango zaio Departamentuko Bizikidetzako Aholkularitzaren Negoziatuari.

Gaur hitzarmenarekin bat egin duen Irunberriko LH IBPz gain, Kanpo Lana programa honako zentro hauek aplikatzen dute: Azagrako Reyno de Navarra DBHI, Alaitz BHI, Barañain BHI, Cintruénigoko La Paz DBHI, Corellako Alhama BHI, Lizarra BHI, Lodosako Pablo Sarasate BHI, Mendabiako Joaquín Romera DBHI, Noingo Elortzibar DBHI, Erriberriko Vianako Printzea Ikastetxe Publikoa, Tuterako Valle del Ebro BHI eta Iruñeko Iñaki Ochoa de Olza DBHI.

Argazki-oina: ezkerretik eskuinera: Javier Cuesta, Irunberriko LH IBPko irakaslea; Rocio Monclús Manjón, Irunberriko alkatea; Carlos Chavarren Cabrero, Irunberriko LH IBPko ikasketa-burua; María Solana Arana, Hezkuntza kontseilaria; eta Mauro Gogorcena, Zangotzako Eskualdeko Mankomunitateko kidea.